

Beriain, Tiebas eta Elortz bailaran ere D eredia nahi dute

NAFARROAKO zonalde ez euskaldunetan daude, eta bi eskaera dituzte: euskarazko irakaskuntza herrian bertan izatea, eta hori lortu bitartean, jantokia eta garraioa ordaintzea.

Ez dira lehenak eskakizunetan. Artaxoako, Mendigorriako eta Larragako gurasoen bidea hartu dute Beriain, Tiebas eta Elortz bailarako gurasoek. Irakaskuntza publi-

koan ezin dituzte haurrak D eredian matrikulatu eskaintzarik ez dagoelako, eta ondorioz, Iruñeko Hegoalde ikastolara eta Iturrama ikastetxera eramaten dituzte haurrak. Jantokia eta garraioa poltsikotik ordaintzen dituzte.

Nafarroako Gobernuako erregistroan 30 eskaera egin dituzte, 60tik gora umeren izenean.

SORTZEN ELKARTEA



Tiebas, Beriain eta Imarkoango gurasoek elkarretaratzea egin zuten Gobernuako erregistroan eskaera egin zuten egunean.

Euskararekin zer?



MAIATZA-EKAINEN *Jakin* aldizkarian euskarak hartu ditu orrialde guztiak. *Herria, nazioa, estatua... eta euskararekin zer?* du izenburu 208. zenbakiak. Euskalgintzaren eta abertzaletasunaren arteko dibortzio kanpaiez, euskalgintzak diskurtsoak berritzeko duen premiaz aritu dira besteak beste ondoko egileak: Alaitz Aizpuru, Haritz Garmendia, Koldo Izagirre, Unai Apaolaza, Joxe Manuel Odriozola, Jule Goikoetxea, Eduardo Apodaka eta Idurre Eskisabel.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Euskaltel, finantza marrazoetara jaurtita?

EUSKALTEL 1995ean jaio zen, telekomunikazio enpresa publiko moduan. 200 milioi pezetako kapitalarekin hasi zuen ibilbidea: Eusko Jaurlaritzak %40 jarri zuen eta aurrezki kutxek %40. Aurki guztiz pribatizatuta eta euskal izaera oro galduta gera liteke. Beste behin ere ikusten ari gara nola enpresa publikoen etekinak pribatizatu egiten diren, galerak sozializatzen diren bitartean. Euskaltel lehenengo kasuaren adibide garbia litzateke —erreskatatutako bankuak, Bankia buru, bigarren kasuari lotuta daude—. Euskal enpresaren akziodun diren atzerriko bi inbertsio funtsek, berriz, sekulako dirutza jasoko lukete pribatizazioarekin.

Uztailean Euskaltel burtsara irtengo da eta 1.500 milioi euroko balioa izango duela iragarri dute; 2012an aldiz 475 milioi euro balio zituen. Euskal kutxek, Eusko Jaurlaritzak, Endesak, Mondragon Taldeak eta Iberdrolak —partzialki— egindako desinbertsioekin, Kutxabank Euskaltelen %49,9rekin geratu zen, eta Trilantic eta Inveindustrial kapitalaren parte izatera igaro ziren 228 milioi euroekin, enpresaren %48,1 kontrolatuz. Hau da, inbertsio funts horiek bi urte eta erdian euren akzioen balioa hirukoiztu dute.

Eta hori gutxi balitz, aurreikusitako burtsara irtetea Euskaltelen hiru akzionistek, —Kutxabank eta aipatu bi inbertsio funtsak— 200 milioi euroko ez ohiko dibiendua jasoko dutela, diru hori bera kobratzeko 300 milioi euroko zorra egin ondoren.

Euskaltel laster burtsara irteteak esan nahi du Euskal Herriko ehun industrialetik urrun dauden beste esku batzuetan eror litekeela bere kontrola. Euskal Herrian errotutako telekomunikazio enpresa oparoa izan zitekeena, gure zergetatik ateratako diru publikoekin sortua, espekulatuzaileen eta finantza marrazoen menpe egongo da. Halakoek etekina baizik ez dute helburu eta horretarako enpresa bera desagerrarazi edo beste operatzaile batzuekin fusionatu behar badute, horixe egingo dute. Zoritxarrez, tarte gutxi dago jadanik hori eragozteko. Baina saiatu beharko ginateke. Kutxabankek erantzukizun handia dauka horretan. Herritarrek, behinik behin, jakin dezatela zer ari diren egosten euskal enpresa horretan.

Juan Mari Arregi